



Debako udalak gazteen aisialdirako lonjak arautzen dituen ordenantzaren lanketa prozesuari segida emanez, eta behin zenbait herritarren ekarpenak eta iritziak jasota, Udalak ordenantzaren proiektua osatu du.

Udalean ordenantzaren hasierako onarpenaren prozedura hasi baino lehen, herritarrek 15 eguneko epea izango dute ordenantza-proiektuari egoki iruditzen zaizkien alegazioak egiteko.

Horretarako, Udalak, ordenantza-proiektua bere webgunean eseki du. Era berean, herritar guztiek eskura izango dute ordenantza-proiektua Udal honetako idazkaritzan.

Ekarpenak udaletxeko erregistroan idatziz egin ahal izango dira edota udaleko webgunean dagoen harremanetarako bidea erabiliz bidali ahal izango dira 15 eguneko epean.

Deban, 2020ko abenduaren 15ean

GILEN GARCIA BOYRA

